

Atman-a

humanista baten ondorioa, alegia. Sentimenezko esperientzia (Feuerbach), gizarte-prozesua (Marx) edota zientziaren garapena (Freud) absolututzat jotzetik datorren ondorio bat besterik ez da. Orduan *fedeari ezez- zik, ateismoari ere halako dohako abiapuntuz mamituz joan den proiektzioa ez ote delako susmoa datzekio. Eta Jainkoaren heriotza edo delako hori gure kulturaren inguru eta abaguneari dagokion erlijioaren ilunaldia bezala agiri da.

Xabier Andonegi

Ik. Teismoa; Deismoa; Agnostizismoak.

Atman-a

India-ko filosofi sistemetan kontzepturik nagusienetakoa eta, bereziki, psikologi ikuskera filosofikoaren erdigunea.

Ātman-en adiera desberdinen oinarrian --mundu fenomenikoaren eta absolutuaren arteko harremana hor biltzen bait da nolabait--, funtsezko puntu batzu nabarmen daitezke.

Jatorriz "arnasa" adierazten zuen hitz honek. Baina filosofiak bizia --bizitz printzipioa-- adierazteko hartu zuen: bai *kosmosarena edo unibertsala, bai --eta bereziki-- norbanakoarena (eta orokorki bizidun bakoitzarena).

Atman da *kontzientzia unibertsalaren nahiz kontzientzia banakoaren erdigunea: "Ni" *unibertsala eta "Ni" banakoa elkarrekin loturik daude, ordea. Izan ere, "Ni" *partikularra bere agerraldi mundutarreko eta bere bizialdi fenomenikoaren ondoren, "Ni" unibertsalaren batasunera bilduko da. Horixe da, hain zuzen, giza salbamena, munduko egoera material eta fenomenikotik libratzea eta "Ni" banakoa bere hutsean eta garbian Ātman handira biltzea.

Hiru osagarri ditu norbanakoak: gorputza beronen sentsuekin batera; *gogoia, ahalmen psikologiko eta guzti; arima (edo ātman-a). "Ni" transzendental eta betierekoa bezala ulertzen da aurrenik ātman hori; gorputz desberdinetan behin eta berriro haragiztatzen eta indibidualtzen da, norbanako fenomeniko bezala agertuz, eta berraragiztapenaren prozesuaren eta legeen arabera.

India-ko filosofi eskola gehienetan ugarri dira "ni"ak edo ātman banakoak. Vedanta eskolako Advaita joerak, berriz, zera bakar eta unibertsaltzat hartzen du Ātman-a, hau eta Brahman-a nolabait berdinduz, hain zuzen ere. Era berean atman banakotuak Ātman unibertsalagandiko parte-hartzeak besterik ez dira, benetako banakotasunik gabeak, benetako "Ni" a bakarra bait da: unibertsala.

Filosofi eskola desberdinen arabera, eta "Ni"aren adiera diferenteen arabera, berbak ere desberdinak erabili izan dira indiar filosofian: horrela, ātman-a adierazteko purusa hitza erabiltzen du Samkhya Yoga-k eta jina Jainismoak.

Psikologiako analisiaren funtsean egonik, ātman-a gizakiaren psikologi egoera guztien ostean bezala dago, kontzientzia hutsaren mailan, funtzio psikologiko guztiak argitzen.

Paulo Agirrebaltzategi

Atomismoa

*Materia *atomoz osatua dagoela adierazten duen doktrina filosofikoa da, Aintzinatek datorkiguna eta Filosofiaren historian zehar materialistek landu dutena. Kreatu gabeak eta kopuruz bukaezinezkoak diren atomo hauek, hutsunean higitzen direnean, zurrunbiloak sortzen dituzte. Munduaren eta gorputz guztien jaiotza zurrunbilo hauetan datza. *Errealitatearen aniztasunak eta natur gertakariak atomoen nahasketan eta higuduran dute beren sorburua. Leuzipo eta Demokrito-ren *adierazi honek dakarren *fatalismoa Epikuro eta Lukrezio-k asmatutako atomoen "klinamen"aren bidez neutraltzen da, doktrina honek atomoei beren arabera higitzeko posibilitatea ematen bait die.

Atomismoa, Erdi Aroan ahaztuta zegoelarik, Gassendi-ren eta *lege mekaniko berrien aurkikuntzaren eraginez, XVII. eta XVIII. mendeetan berragertu zen, eta bere aldirik desberdin guztiekin gaur egunerarte iritsi zaigu.

Atomismo mekanizista lehengo atomismoari emandako izena da; atomismo matematiko, pitagoriko edo dinamikoa, berriz, materia hedaturarik gabeko indar-zentruak edo puntuek osatua dagoela adierazten duena da.

Leibniz-ek asmatu zuen *monaden doktrinari, berriz, atomismo metafisikoa deitzen zaio, berak zioenez, monadak naturaren egiazko atomoak zirelako. Psikologian, bestaldea, atomismo psikologikoa aurkitzen dugu: gogamenezko gertakari guztiak elementu bakunen konbinaketaren bidez adierazteko asmoa duena da. Gaur eguneko atomismo fisikoak, *hipotesi razional eta filosofiko bat besterik ez zen Aintzinateko atomismoa gaindituz, *esperientzian oinarritzen du atomoen teoria; hauen arabera atomoak ez dira elementu bakunak, elkartruke energetikoa adierazten duten ekuazioen bidez erakusten den errealitatea baizik. Azkenik, Russell-en teoriak, atomismo logikoak alegia, dienez, *mundua elemen-